

I g e l d o k o

ORRI

5. zenbakia
1999ko martxoa

INFORMATIBOA

Igeldoko Herri Kontseilua
Itsas Aurre Kultur Etxea
Kristobal Balenziaga kalea 110
Tfnoa.: 943-313030 • IGELDO



BEHIN BAZEN.... !

Ipuinak modu horretan hasten dira normalean, hala kontatu izan dizkigute behintzat. Igeldoko Plan Partziala eta etxebizitzaren eta eskolaren eraikuntza ere ipuin bat dirudite; ipuin txarra ordea, hasiera koloretsua baina bukaera ilunakoa edota bukaera gabekoa.

Hirigintza zinegotziak aurtengo urte bukaerarako lanak hasiko direla esan zuen. Ikusteko dago! Gogoratu besterik ez dago 1.998an Plan Partziala bukatuta egon behar zuela eta eskola berria eraikitzen behar zutela honezgero. Egungo egoera joan den urte hasierakoa da, badakigu eskola frontoiaren atzealdean jarri nahi dutela, errepi-de berria hasierako proiektuan baino zerbait beheraxeago joango dela eta 74 etxebizitza eraikiko direla, hauetako 48 babes ofizialekoak.

Baina aipatutakoa ipuinaren hasiera besterik ez da, aspalditxo ezagutu eta entzun genuena. Ez dago jarraipenik ordea. Udalak Plan Partziala onartu arte ez dago jakiterik ipuinaren nondik norakoak, ezta amaiera zoriontzua izango duenik ala ez.

Hau guztia Donostiako Udalarik dagokionean. Baina Igeldotik ere ez da sumatzen mugimendurik. Herri Kontseiluak bi talde jarri nahi izan zituen martxan: Bata lurjabeena, bi

bileretan egoeraren berri emanez eta lurjabeen ekimena bultzatu nahian; bestea etxebizitza behar-rean daudenekin. Azken hauek bildu egin ziren eta taldetxo bat ere lanean hasi zen. Hasi bai, baina guztia

ezerezean geratu da. Beraz, Igeldoko martxa ere makala baino makalagoa.

Ez diogu orrialde hauetan ipuinari bukaera jarriko. Zoriontzua izango ahal da!



Deszentralizazioa ekainerako

Zubietak duen antzeko sistema nahi du Udalak Igeldorako. Herri Kontseilua eta Udal ordezkariak hitz egiten ari dira egitasmoa aurrera eramateko.

Igeldo Donostiatik deszentralizatu egingo da aurren. Asmo hori du behintzat Odon Elorza alkateak eta Gobernu Batzordeko hiru alderdi politikoen. Iazko azaroan hasi ziren bilerak Igeldoko Herri Kontseilua eta Udal ordezkarien artean. Dagoeneko bitan bildu dira eta udal ordezkariak prest eduki nahi dute deszentralizazio eskaintza aurtengo ekaineko udal hauteskundeetarako. Horrela balitz, igeldotarrek bi hauteskunde izango lituzkete; Donostiako alkatea aukeratzeko bata eta deszentralizatutako Igeldoko ordezkariak hautatzeko bestea.

Edukiez zein eman beharreko urratsez hitz egiten hasi dira. Dena den, Igeldoko Herri Kontseiluko ordezkariak garbi utzi zuten bilerak hasi aurretik, udalari bihurtzea dela Igeldoren lehen helburua eta bide hori ez oztapatzea eskatu die udal ordezkariak.

Herri Kontseiluak egin du lehen txostena, eta zenbait proposamen egin dio Donostiako Udalari. Lehena, hauteskunderi begira gainera, hautaketa -sistema Igeldon lehen egin zenaren bidetik egitea komeni dela uste da: alderdi politikoak alde batera utzita eta zerrenda irekiak erabilia.

Informazioa

Donostiako Udalak Igeldorekin zerikusia duen edozein txosten edo informazio eman beharko die Igeldoko ordezkariak: hirigintza, azpiegiturak, plan partziala, obrak, eta abar.

Igeldotarren ustez, gertatzen denaren jakinen gainean egon

behar dute: erregistroan sartzen diren eskaerak, udaltzaingora iristen diren salaketak, politikoen egitasmoak eta horien ezaugarri eta aurrekontuak...

Igeldotarrek argi dute zenbait gaietan eskuduntza edo gutxienez zersana eduki behar dutela. Proposatu dute, esate baterako, Plan Partzialaren erredakzioan, egin nahi den errepide berria eta etxebizitzaren banaketan aholkulari moduan parte hartzea, eta ihardue-ra baimenak, lur mugimendua, pista berrien zabalkuntzak, eraiketa baimenak eta abar eman aurretik, Herri Kontseiluaren iritzia derri gorrez jaso behar izatea.

Bestalde, Igeldotik jartzen diren lehentasunak Udaleko sail guztiek errespetatu beharko lituzkete.

Herri Batzordeak zenbait atalen gestioa edo kudeaketa nahi du. Kultura eta kirol arloan, dauden ekimenak mantendu (bertsolaritza, txalaparta, pilota eskola, trikitixa eskola...) eta berriak garatzeko ahalmen ekonomikoa edukitzea.

Udal ondarearen mantenimendua izan eta bertan dauden eskaerei aurre egiteko eta ikusten diren beharrik konpontzeko ahalmena edukitzea. Gainera, zerbitzuak zabaltzeko aukerak ere aztertu beharko lituzkete.

Bide, espaloi eta azpiegituren

mantenimendua egitea, obra txikiak aurrera eramateko ahalmena izatea gure langileekin, auzolanean edota kanpoko enpresaren bat kontratatuta. Harreman zuzena eskatu dute udal zerbitzuekin: FCC, UTEASO, eta abar. Gainera udal zerbitzu buruek kasu egin beharko diote Herri Kontseilutik agindutakoari.

Udal eta Herri Lurren mantentzerako gestioa izatea eskatu da: lurra garbitzeko, landatzeko aukera izateko. Lur hauen erabilera ego-kia bultzatzeko ahalmena izatea.

Langileak

Garai batean bezala, mendiko guarda eskatu da, Igeldon eskumena edukiko lukeena. Bere esku geratuko litzateke herri bideen eta herri lurren zaintza, lanen kontrola, lurren mugimendua, soroen ixtea eta abar. Trafikoa zaindu beharko luke eta salatzeko edota isunak jartzeko ahalmena edukiko luke.

Balioanitzeko langilea, mantentzerako prestakuntza dagoena beharrezkoa ikusi da: igeltsaritza, iturgintza... Kanposantuko mantenimendua eta lurperatze lanak bere gain hartu beharko lituzke.

Idazkaritza beharrezkoa litzateke: artxiboak, faxa, ordenadorea eta abar.

Herri Kontseiluko kideek bere egin beharrekoak betetzeko behar dituzten orduak ordaindu beharko litzaieke.

Hau guztia da Igeldoko Herri Kontseiluak eskatu duena. Txostena Koro Garmendia zinegotzia aztertzen ari da dagoeneko. Laister beste bilera bat izango da.

Iritzia

Kudeaketa

Hiri mantenua

Udalak segregazio eskaera bideratu behar du

EAEko Auzitegi Gorenak epaia betetzera behartu du

Segregazioaren auziak foiletoria dirudi. Udala eta Itsas Aurre sokatiran ari dira etengabe, baten aldeko epaiak bestearen helegitea dakar eta alderantziz. Soka luzea da eta ktramilatsua gainera

Azken erabakia duela bi hilabete hartu zuen EAEko Auzitegi Gorenak: Donostiako Udalak bideratu behar du segregazio eskaera 1986ko abuztuaren 14ko arauan oinarrituta. Odon Elorza alkateak epai honen berri izan eta gero Donostiako Udalak gauzak garbi dituela adierazi zuen «Prozesu gogorra izango da. Udalak ahalegin guztiak egingo ditu Igeldo Donostia barruan mantendu dadin».

Foru araua, baliogabetua

Auziak norabide berria hartu zuen iaz, EAEko Auzitegi Gorenak Batzar Nagusien foru arau berria baliogabetu zuenean. Horrek egoe-

Itsas Aurre berrituz

Itsas Aurre etxea berritzeari ekin diote. Etxearen alboetako bi hormak konponduko dituzte, Plazetxe eta Txapela aldekoak alegia. Horma pikatu eta osorik zarpeatzeko asmoa dute. Dena den, eta aurreko hormarekin egin zen bezala, harria bistan uztea eskatu da Igeldotik.

Gainera, Itsas Aurre atzealdean eraiki zen jolaslekuan sarea jarri dute umeek baloiak galdu ez ditzaten eta lasai jolas dezaten.



ra asko aldatu du, segregazioa lortzeko baldintzak eta eskaerak oso desberdinak baitira arau berrian eta zaharrean. Hala eta guztiz ere, ez dagoela ezer aurreraterik aipa-

tu digu Koro Garmendia zinegotziak. «Auzitegi Gorenak atzera bota du foru legea, ez duelako Espainiako Estatuko Kontseiluaren onespenerik. Oraindik ez dakigu zer gertatuko den foru arauarekin, baina Batzar Nagusiek erabaki honen aurka joko dute».

Bien bitartean, Itsas Aurre Udalaren txostenaren zain dago. Ondoren etorriko da Batzar Nagusien erabakia. Erabakiak segregazioaren aurkakoak balira, Itsas Aurrek errekurtsioa jarri eta Estatu Kontseilura joango da auzia. Koro Garmendiak ez du azken urrats hau hain garbi. «Zenbait kasutan Estatu Kontseilura jo beharrean azken erabakia Eusko Jaurlaritzaren esku gera daiteke. Hau ere aztertzeko bidea izan daiteke».

AZKEN EPAIKETA HELEGITEAK

- 1995eko ekaina: Udalak segregazio eskaera ez zuen bideratzen. Itsas Aurrek bi errekurtsio jarri zituen: Udalaren erabakiaren aurka eta Gipuzkoako Batzar Nagusiek indarrean jarritako foru arau berriaren aurka.
- 1998ko otsaila: EAEko Auzitegi Gorenaren epaia araudi zaharraren aldekoa izan zen. Udala segregazio eskaera bideratzera behartu zuen.
- 1998ko martxoa: Udalak epaia errekurritu zuen Madrilego Auzitegi Gorenean.
- 1998ko ekaina: Itsas Aurrek EAEko Auzitegi Gorenari otsailean emandako epaia aurrera eramatea eskatu zion.
- 1998ko abuztua: EAEko Auzitegi Gorenak Gipuzkoako Batzar Nagusien foru araua baliogabetu zuen.
- 1998ko iraila: EAEko Auzitegi Gorenak otsaileko epaia aurrera ez eramatea erabaki zuen.
- 1998ko azaroa: Itsas Aurrek EAEko Auzitegi Gorenaren iraileko azken erabakia errekurritu zuen berriro.
- 1.999ko urtarrila: EAEko Auzitegi Gorenak iazko otsaileko epaia indarrean jarri du. Udalak segregazio eskaera aztertu eta bideratu beharko du.

Kanposantuko hilobien banaketa berezia da

Igeldokoa udal kanposantua den arren eta Polloe edota Altzako hilerriek duten araudi bera eduki behar lukeen arren, praktikan ez da horrela eta kanposantuko hobi komunak erabilera ez da ohikoa.

Igeldokoa, 1950ean hilerria berri eta handitu ondoren, hilobi komunak familiak banatu ziren. Antolaketa hori gaur egun arte mantendu da, eta gainera ez da inor lurpetik atera. Normalean, hobi komunak aldi baterako erabilera dutela azpimarratu digu Juanjo Martinez Udaleko Zerbitzu Berezien Buruak. *"Legeak agintzen du bost urteren buruan gorpuak hilobitik atera behar direla, nahiz eta Donostian hamar urte edo gehiago egoten diren. Igeldoren kasuan ez da inor atera orain arte, beharrezkoa ez delako izan. Urtean zortzi bat pertsona ehorzten dira".*

Tentuz hartzeko gaia

Udaleko teknikariek egoera zein den aztertu nahi zuten, hobi komunak nola dauden banatuta ikusi eta horretarako jendea Udaletxera joateko eskatu zuten. Herri Kontseilua



laguntzeko prest azaldu zen, eta kanposantua nola antolatuta dagoen jakiteko errola bat egiten saiatzen ari da. Behin informazio guztia bildu eta gero, erabaki bat hartu beharko dela dio Martinezek. *"Zentzuz jakatu behar da eta irteera bat aurkitzen saiatuko gara, baina ez dugu jendea larritu nahi. Kasu berezia da eta kontuz aztertu beharrekoa".*

Gaia aspaldikoa den arren, hobi komun batzuetan hilarri bereziak

jarri eta gero sortu zen Udalaren kezka. *"Zazpi hilobietan hilarri lodi eta pisutxuak jarri dituztenez, lupe-ratzaileek zailtasun handiak izaten dituzte ehorzketa bat egin behar den bakoitzean".*

Urez gainezka

Herri Kontseiluak salatu du Udaletxean zenbait hilobitan ur asko sartzen dela eta beharrezkoa dela obra bat ura bideratzeko. Kontuan hartu behar da kanposantua zaharra dela eta duen kokapenagatik ur asko sartzen dela bertara. Bestalde, lurperatzailea eta kanposantua zaintzeko jendea beharrezkoa dela aipatu zen.

Eguneratzea

Hau guztiaz gain, panteoi jabeek ere Udaletxetik igaro beharko dute datuak eguneratzeko. Donostiako hilerri guztietan egiten ari den lana da, eta 2.001. urterarte epea zabalik dagoen arren, lehenbailehen joatea komeni da. *"Hilobi batzuen kasuan, joan den gizaldiko datuak ditugu eta hauek gaurkotzea ezinbestekoa da".*

ARAUDIA PUNTUZ-PUNTU

1953ko martxoaren 26an Udalak onartu zuen araudia:

- Eraikitako hobi komunak familiak ordenatuko dira.
- Bi familiako hilobi bat izango da. Familia ez da izango jabea, usufruktuduna baizik, eta Donostiako Udalak zeresana izango du hilobien zainketan.
- Familiek askatasuna dute euren hilobiak elkarrekin antolatu edo elkartzeko.
- Hilobi guztiek harrizko gurutzea eta hilarri-hilartitz bana izango dute. Interesatuak ordaindu eta zaindu beharko dituzte.
- Panteoiak egiteko lursailak salgai daude. Metro bateko zabalera eta bi metroko luzera duen hilobiarengatik 300 pezeta ordainduko da.
- Apaizaren, Fabian Loidiren, ardura hilobien banaketa, garbiketa, ordena eta kanposantuaren administrazioa izango da, lurperatzaileaz gain horretarako behar diren langileak erabiliz.


HOBİ KOMUNEN ZERRENDA

ZENBAKIA ETA LURPERATUEN IZEN-ABIZENAK

- 01: M^a Dolores Arrastua(1973), Bartolome Erauskin (1.973), Jose Martin Arrastua (1.975), Tomas Arrastua (1.983), Vicente Oraa(1983), Mikel Arrastua(1988), Maria Erauskin (1.990).
- 02: Manuel Garmendia(1951), Mercedes Garmendia(1.958), Magdalena Berridi(1.959), Francisco Izagirre(1.969), Jose Garmendia(1981) eta Jose Maria Izagirre Berridi(1.987).
- 03: Alejandro Martiarena (1.951), Manuela Zendoia (1.966), Antonio Martiarena(1.997)
- 04: Jose Maria Gomendio (1.991)
- 05: Angel Martikorena (1966), Antonio Martikorena(1.987), Manuela Olaizola (1.987), Iñaki Makazaga(1.996), Benancio Martikorena(1.988).
- 06: Josefa Olasagasti(1.952), Isabel Martikorena(1.962), Jesus Mitxelena(1.969), Kandido Otaegi(1.984), Maria Martikorena(1.988), Tomas Zubeldia(1.944), Tomas Mitxelena (1.994) eta Maria Olasagasti(1.996).
- 07: Santos Aranguren (1.952), Jose Antonio Aizpuru(1.992), Teresa Arruti(1.993).
- 08: Jose Ignazio Mitxelena Eskudero(1.952), Teresa Mendizabal(1.965), Jose Miguel Mitxelena(1.991), Ignacio Mitxelena(1.997).
- 09: Maria Gaztañaga Arregi(1.950), Nikolas Dorronsoro(1.953), Mari Kruz Gaztañaga Dorronsoro(1.961), Felipe Dorronsoro(1.964), Antonio Dorronsoro Gaztañaga(1.996).
- 11: Maria Saralegi (1946), Vicenta Munoa(1.953), Miguel Estanga(1.959), Juan Mugika(1.972), Jose M^a Estanga(1.978), Daniel Elvira(1.986), Maria Estanga(1.986), Jose Ignazio Etxaniz(1.992), Juan Kruz Etxaniz(1.992).
- 12: Maria Eraunzetamurgil Zapirain(1.953).
- 13: Ignacio Martikorena(1.954), Maria Azpillaga(1957), Domingo Eskarmendi(1.970), Santi Martikorena(1.971), M^a Dolores Lizarazu(1.981), Kristina Martikorena(1.983), Imanol Etxabe(1.986), J. Agustin Martikorena(1.997).
- 14: Emeterio Iraola(1.954), Martina Elizegi(1.958), Juliana Ezeiza(1.962), Jose Franzisko Iraola(1.971), Jose Kruz Garmendia(1.983), Natividad Iraola(1.992), Jose Iraola(1.994), Ignazio Iraola(1.995), Ana Martikorena(1.995).
- 15: Ramon Galparsoro(1.996).
- 17: Anton Martikorena (1.981), Juliana Azurza (1.997).
- 19: Antonio Balerdi(1.955), Mikaela Lizaso(1967), Josefa Antonia Lizarazu(1.982) Epifania Iraola(1.995).
- 20: Luciana Urruzmendi (1.956), Jose Kruz Zinkunegi(1.967), Juana Ormaetxea (1.979), Jose Manuel Zinkunegi(1.986), Benito Zinkunegi(1.993).
- 21:Manuela Balerdi(1.956), Jose Uranga(1.978).
- 22: Francisco Arana(1.956), Manuel Landa(1.980), Manuela Larburu(1.993), Saturnina Landa(1.998).
- 24: Josefa Antonia Esnal(1.957), Bernardo Iraola(1.960), Juan Mari Eraunzetamurgil(1.970), Dolores Iraola(1.979), Pilar Eraunzetamurgil(1.991).
- 25: Mercedes Aristi(1.959), Juan Iradi(1.968), Josefa Ignazia Zubeldia(1.983), Josefa Iradi(1.988), Jose M^a Iradi(1.995).
- 27: Antonio Lizaso(1.957), Antonio Lizarazu(1.981), Josu Lizarazu(1.986), Catalina Seguro(1.994), Eusebio Iruretagoiena(1.996).
- 28: Antonia Mendiluze Agirrezabala(1.959), Manuel Arrillaga (1.972), Antonio Martikorena(1979), Eskolastika Arrillaga(1.994), Eusebia Usategi(1.996), Manuel Arregi(1.997).
- 29: Francisco Odriozola Ezeiza(1.954), Markox Aristegieta(1.972), Juan Jose Aristegieta(1.984), Jose Joakin Aristegieta(1.985), Patrizia Arruti(1.994), Jose Joakin Ortega(1.998).
- 30: Luis Berridi(1.960), Alejandro Zubizarreta(1.973), Maria Mitxelena(1.979), Esteban Lizarralde(1.983), Jose Maria Zubeldia(1.984), Esteban Lizarralde(1.996).
- 31: Jose Martin Auzmendi (1.957), Jose Peña(1.960), Jose Manuel Lopetegui(1.976), Juan Bautista Auzmendi(1.982), Fermin Eskudero(1.995), Juana Auzmendi(1.995).
- 32: Jose Errazkin(1.960), Maria Martikorena(1.963), Jose Azurza(1.970), Maria Zubeldia(1.971), Celestino Zubeldia(1.973), Josefa Ignazia Azurza(1.981), Francisco Azurza(1.982), Manuela Zubeldia(1.985).
- 33: Martin Etxabe(1.973), Antonia Arruti(1.976), Jose Etxabe(1.984).
- 34: Miguel Iparragirre(1.972), Maria Arregi(1.979).
- 35: Jose Sorondo(1.960), Sabina Odriozola(1.963), Martin Sorondo(1.985), Markel Sorondo(1.992).
- 36: Jose Matxain(1.960), Axentxi Lizaso(1.966), Pakita Goikoetxea(1.997).
- 38: Juan Pagola(1.984).
- 39: Francisco Urruzmendi(1.961), Francisca Gabilondo(1.966), Rosa Goisoro(1.997), Manuel Urruzmendi(1.998).
- 40: Juaxi Zubeldia(1.962), Josepa Zubeldia(1.975), Alejandro Etxebeste(1.984).
- 41: Josefa Huegun(1.966), Juan Jose Huegun(1.970), Eskolastika Mendiluze (1.975), Rosa M^a Izagirre(1.979), Jose Antonio Mugika(1.984), Juan Jose Mugika(1.986), Jose M^a Iraola(1.995).
- 43: Mikela Embil(1.963), Rosario Urruzmendi(1.963), Joakina Arruti(1.987),

- Manuel Arruti(1.996), Maria Iraola(1.997).
- 44: Manuel Aiestaran(1.948), M^a Karmen Santamarta(1.963), Katalina Lizaso(1.963), Gregorio Santamarta(1.997).
- 45: Antonio Torrente(1.963), Francisco Torrente(1.994).
- 46: Jose Mari Mendiluze(1.963), Anastasia Azkue(1.996), Juan Jose Mendiluze(1.998).
- 47: Juan Embil (1.963), Jose Antonio Seguro(1.998).
- 48: Ignazia Etxebeste(1.964), Miguel Etxebeste(1.973), Ignazio Etxebeste(1.993), Luis Arrillaga(1.995), Joakin Arrillaga(1.996), Ignazio Etxebeste(1.997), Miguel Martikorena(1.998).
- 49: Luis Izagirre(1.963), Maria Uranga(1.968).
- 50: Manuela Berridi(1.966), Benito Oiarbide(1.991).
- 51: Josefa Tolosa(1.974), Julian Arrillaga(1.982), Antonia Ezeiza(1.987), Hilaria Benito(1992), Joakin Ezeiza(1.997).
- 53: Sydney Hutton(1.986), Jose Joakin Lizarazu(1.986), Damasa Garmendia(1.988).
- 54: Eiren Encina(1.973).
- 55: Jose Maria Iraola(1.967), Clemente Iraola(1.973), Antonio Iraola(1.988), Francisco Copete(1.995), Ramon Iraola(1.997).
- 56: Maria Olaizola(1.971), Amaia Huegun(1.985).
- 57: M^a Concepcion Iraola(1.971), Mariano Azurza(1.974), Lorenza Azurza(1.992).
- 58: Ramon Zendoia(1.968), Jose Urruzmendi(1.979).
- 59: Jose Ramon Arcalus(1.968), Jose Manuel Arcelus(1.982), Mateo Sagardia(1.982).
- 60: Manuel del Hoyo(1.978), Jesusa Muñoz, Manuel del Hoyo Muñoz(1.998).
- 61: Angela M^a Sierra (1.987).
- 62: Francisco Mendinueta(1.991).
- 63: Isidro Ugarte(1.969), Balbina Insausti(1.974), Joxe Lizarazu(1.978), Antonio Ugarte(1.984), Juan Maria Lizarazu(1.986), Maria Insausti(1.988), Juan Ugarte(1.998).
- 64: Gregorio Etxeberria(1.976).
- 65: Jose Ramon Lizarazu(1.968), Balbina Lizarazu(1.970), Jose Luis Errazkin(1.971), Jose Ramon Lizarazu Zubeldia(1.975), Luis Errazkin(1.989), Josefa Balerdi(1.997).
- 66: Teresita Peral (1.975).
- 67: Jakoba Zubillaga(1.972), M^a Jesus Arrillaga(1.978), Joxe Arrillaga(1.981), Joxepa Uranga(1.985).
- 70: Pilar Agirrezabala(1.974).
- 71: Francisco Oiarzabal(1.974), Juana Iradi(1.985), Jose Luis Oliden(1.992).
- 73: Juana Luisa Ribon(1.950).
- 74: Simon Antonio Ugalde y Lazkano(1.915).

*Oharra: Zerrenda hau osatu du Herri Kontseiluak orain arte.




Frontoia 2000. urtearen zain

Herri Kontseiluak egiteke dagoen frontoiaren bigarren fasea egin aurretik, proiektu bat aurkeztu dio Udalari. Igeldotarrek Donostiako Udalak aurreikusita zituen ekipamenduak eta aldagelak egin ordez, frontoia iparraldetik eta mendebaldetik ixtea proposatu dute. Iparraldetik, errebotek duen alturatik gora metro batzuek itxiko lirateke eta mendebaldetik sabaiaren erremateraino.

Harmaila jartzea ere eskatu da, baina lehen aurreikusita zegoena baino merkeagoa. Harmailen kostea jaitsiz gero, esandako guztia egiteko adina diru egon daitekeela dio Herri Kontseiluak.

2000. urtean beharko

Herri Kontseiluak Udalak proiektua aurtengorako onartuko zuela uste zuen arren, ez da horrela izan. Jesus Barreiro Lan eta Proiektuez arduratzen den teknikariak esan digu ez dagoela aurten Igeldoko frontoiarentzat dirurik. «Aurtengo aurrekontuan ez dago dirurik frontoiaren bigarren fasea egiteko. Hori bai, bigarren seihilekoan proiektua lantzen hasiko gara. Herri kontseiluak egindako proposamena aztertuko dugu eta asmoa da 2.000. urtera-




1. Errebotea zuzendu, igo eta gainean argia pasatzen utziko lukeen materiala jarri nahi du Herri Kontseiluak. Lizardi parean ere, oinarria horma litzateke orain Lizardikoak duen alturakoa- eta gainerakoa lehen aipatu materiala.

2. Frontoia erabat itxita eta babestuta geratuko litzateke. Harmailen azpian biltegia jarri nahi da, sokatira taldekoek, pilotaeskolakoek eta behar duen edonork materiala gorde dezan.

ko frontoia erabat bukatuta egotea».

Pilotalekuaren egungo egoera kontuan hartuta bigarren fasea beharrezkoa izango da. Sabaia altua denez, euria egingiten duenean eta batez ere haizeak ipar-mendebaldetik jotzen duenean frontoia erabat bustitzen da. Gainera euriak utzitako ura ez da jasotzen, ubiderik ez dago eta ur-saretak itxita daude. Ondorioz, ura eta lokatza sartzen dira barrura eta sarritan pilotalekuaren errebote



ingurua ureztatuta egoten da.

Erreboteko horma zuzentzea, errebotearen atzealdean espaloia jartzea eta plazatik frontoira doan oinezkoen pasabidea errepidea zeharkatuko duen koska baten gainean jartzea proposatu da.



**Igeldoko
Herri
Kontseilua**